

“MAIER S. COOP. VI. NAZIOARTEKO DISEINU LEHIAKETAKO” OINARRIAK

1 - DEIALDIA

Maier S. Coop. enpresak “Maier S. Coop. Diseinuaren Nazioarteko VI. Lehiaketa”rako deialdia egin du, eta automozio-ibilgailuen Colour & Trim diseinua izango du ardatz.

2 - GAIA

Colour & Trim 2025ean.

2025. urteko ibilgailu automobil baterako Colour & Trim kontzeptu berria planteatu behar da, ibilgailu hori merkatu hauetako batean salduko baita: Txina, India, NAFTA edo Europa.

Merkatu jakin baten behar edo aukera batean oinarrituaz, historia bat egin behar da, eta, horren bidez, Colour & Trim kontzeptu estetiko-funtzional berri bat sortu.

Hori ekoizteko erabiliko liratekeen teknologiei buruzko ikuspegi bat ere eman beharko da.

Nola irudikatzen duzu ibilgailu hori 2025ean?

3 - PARTAIDEAK

Edozein pertsona fisiko edo erakunde juridiko aurkez daiteke, nahiz banaka nahiz taldean.

4 - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA AURKEZTEKO ARAUAK

Mesedez, ondo irakurri arau hauek proiektuak bidali aurretik.
Osatu gabe dauden proiektuak atzera bota ahal izango dira.

Proiektuek 4 entregagai hauek izango ditu:

1) Joeren panela

Joeren panela izeneko entregagaien, Colour & Trim joeren azterketa grafikoa egingo da, eta ibilgailuen barneko eta kanpoko akabera estetikoek norantz jo behar duten markatuko du.

Entregagaiak, gutxienez, DIN A3 neurriko irudi bat izango du; kalitate handiko png formatuan edo jpg-n egongo da irudia, eta 300 px-eko bereizmena izango du.

2) Materialen erakusgaia

Materialen erakusgaia izeneko entregagaien adieraziko da Joeren panelean jasotako Colour & Trim joerak egiazko materialekin nola erreproduzitu.

Materialen erakusgaian, gutxienez, DIN A3 neurriko panel horizontal zurrun bat egongo da, eta hor itsatsita edo finkatuta egongo dira lehiakideak proposatutako materialak.

3) Ibilgailuan aplikatu

Entregagai horretan, proiektuaren edukia ibilgailu zehatz baten barnean eta kanpoan aplikatuta adieraziko da.

Colour & Trim diseinua aplikatzeko oinarri gisa, edozein ibilgailu erabil daiteke, dela norberak diseinatutakoa dela egungo diseinu bat.

Berariazko ibilgailu bat diseinatu edo erabili nahi ez duten partaideek,

www.maierinnovation.com/competition/homepage webgunean, txantilo batzuk izango dituzte, bista batzuekin, eta aplikazioak oso ondo ikusteko moduan geratuko dira txantilo horietan.

Honako aplikazio hauek balioetsiko dira soilik:

Aurreko modulua

Alboetan muntatzekoak

Atearen barrualdeko heldulekuak

Barneko aurrealdea

Entregagaiak, gutxienez, barneko irudi bat eta kanpoko beste bat izango ditu, DIN A3 neurrian, kalitate handiko png formatuan edo jpg-n eta 300 px-eko bereizmenarekin.

4) Abstract

Abstract entregagaien, proiektuaren oinarriko historia egongo da, baita *Joeren panela*, *Materialen erakusgaia* eta *Ibilgailuan aplikatu* entregagaiak ulertzeko behar diren azalpen guztiak ere.

Proposatutako Colour & Trim akaberak lortzeko erabil daitezkeen balizko ekoizpen-teknologiak aipatzea balioetsi egingo da (partaide profesionalen kasuan soilik).

Abstract hori ingelesez idatzi beharko da.

Entregagaietako inon ere ezingo da egon egilea edo egileak identifikatzeko moduko elementurik (izena, inisialak, sinadura, etab.).

5 - PROIEKTUAK BIDALTZEA

Proiektuak bidaltzeko jarraibideak webgunean izango dira eskuragai:

www.maierinnovation.com/competition/signin

6 - PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA

Proiektuak aurkezteko azkeneko eguna 2015eko martxoaren 12a da, osteguna.

Lehiaketara aurkeztutako lanik ez da itzuliko, eta ez da horien inguruko korrespondentziarik edota inolako informaziorik bidaliko.

7 - PARTAIDEAREN BERMEAK

Lehiaketa honetan parte hartzen duen orok Maier S. Coop. enpresari honako hau ziurtatzen eta bermatzen dio:

Proiektua jatorrizkoa dela eta beste lehiaketa edo foreoren batean ez dela aurkeztu ahoz edo idatziz.

Proiektuaren egile bakarra dela (proiektua pertsona batek baino gehiagok edo enpresa batek egin badu, egile bakarrak berak direla ziurtatu eta bermatu behar dute) eta horrek ez duela zuzenean edo zeharka hirugarrenen eskubiderik urratzen.

Proiektua lehiaketara aurkeztu duenean, Proiektuaren jabetza industrial eta intelektualeko eskubideen titular bakarra eta legezkoa dela (Proiektua pertsona batek baino gehiagok edo enpresa batek egin badute, titular bakarrak eta eskusiboak direla bermatu beha dute).

Partaidea pertsona fisikoa bada, Proiektua ez dela egin bere laneko jardueraren arloan, ezta besteren konturako zerbitzuetan ere.

8 - EPAIMAHAIA

Epaimahaiak hautatuko ditu saridunak.

Epaimahaiaren balorazio-irizpide nagusiak hauek izango dira:

Diseinu-proposamenen berrikuntza.

Entregagaien kalitatea.

Automozio-sektorean aplikatzeko gaitasuna.

Epaimahaiaren behin betiko osaera proiektuak aurkezteko epemuga baino lehen jakinaraziko da.

9 - SARIAK

Hiru sari izango dira:

Diseinatzaile profesionalentzako saria: Garaikurra eta 8.000 euro.

Ikasleentzako saria: Garaikurra eta 4.000 euro.

Materialen erakusgai onenaren saria: Garaikurra eta 3.000 euro.

Epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanetako inork ere ez baditu saritzeko behar diren baldintzak betetzen, sariak hutsik gera daitezke.

Sariak ezin dira zatitu.

Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak dira.

10 - SARI-EMATEA

2015eko ekainaren amaieran emango dira sariak Bilbon, Bizkaian (Espainia).

11 - PROIEKTUEN DIBULGAZIOA

Lehiakideek Maier S. Coop.i ematen diote lehiaketara aurkeztutako proiektuak ahoz, idatziz edo grafikoki argitaratzeko, komunikatzeko, aurkezteko edo hedatzeko baimena, betiere proiektuaren egilea aipatuaz.

12 - INFORMAZIO-ESKAERA

Informazio gehiago nahi izanez gero, helbide elektroniko honetara eskatu:

automotive_innovation@grupo.maier.es

13 - DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Partaideen datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera tratatutako ditu Maier S. Coop. enpresak, eta xede bakarra lehiaketa hau egitea izango da.

14 - EZAR DAITEKEEN LEGEA

Lehiaketa hau espainiar zuzenbidearen mende dago.

15 - GATAZKAK EBAZTEKO PROZEDURA

Partaidearen eta Maier S. Coop. enpresaren artean desakordioen bat egonez gero lehiaketaren inguruan edo Oinarri hauetan ezarritako zerbaiten inguruan, Bilboko Auzitegi eta Epaimahaiek izango dute eskumena auzi horren inguruan.

16 - OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartu egin direla esan nahi du.

17 - JAKINARAZPENAK

Informaziorako iturri ofiziala www.maierinnovation.com/competition/homepage webgunea izango da, eta Lehiaketari buruzko informazio, aldaketa eta aurrerapen guztiak webgune honetan adieraziko dira.

Lehiaketaren batzorde antolatzailea